

## SAN INAZIOKO ETA ATXURIKO KIROLDEGIEK AENOR-EN IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ZIURTAGIRIA JASO DUTE

- Bilboko alkatea gaur goizean izan da San Ignazioko instalazioak ikusten, eta han jaso du ziurtagiria, AENOR-en Euskadiko presidente Luz Emparantzaren eskutik.
- Ezagutza hau etorri da kiroldegi bi horietan Udalak eginarazitako hobekuntza-obrei esker, alegia, oinen bidez hautemateko bideak eta seinaletika irisgarriagoa ezarririk, eta baita ere mugikortasunari laguntzeko elementuak eta lekuak hobeto identifikatzeko elementuak.
- Bilboko Udala lanean dabil datozen urteotan kiroldegi guztiek izan ditzaten ziurtagiri hau.
- Bilboko alkateak San Ignazioko kiroldegian egindako ikustaldia baliatu du ikusteko nola geratu diren padel pista berriki estaliak, eta baita ere tenis pistak, haietan zoladura aldatu eta hobetu ostean.

(*Bilbo, 2022ko urtarrilaren 20a*).- San Ignazioko eta Atxuriko kiroldegiek AENOR-en irisgarritasun unibertsaltasunaren ziurtagiria jaso dute, bermatzen duena instalazio biek betetzen dituztela irisgarritasun baldintzak, arren eta **pertsona guztiek, are mugitzeko, zentzumenezko edo ezagumenezko desgaitasunen bat dutenek, aukera izan dezaten haietan eskaintzen diren zerbitzuez gozatzeko.**

Gaur goizean, **Juan Mari Aburto** alkateak, **Itxaso Erroteta** Gazteria eta Kirol zinegotziarekin eta Udalbatzako ordezkariekin batera, **San Inazio Kiroldegiko instalazioak bisitatu ditu**. Bisita honetan Bilboko Alkateak **Luz Emparanza** AENOR-en Euskadiko presidentearen eskutik jasoko ditu ziurtagiriak. Aburtok nabarmendu du gaur jasotako bi ziurtagiri berri horien gainean: "*Bilboko Udalak aurrera egin du eta indartu egin du bere instalazioetako inklusioaren eta irisgarritasunaren alde hartuta daukan konpromisoa, eta, oraingo aldi honetan, kirol instalazioetan*". Eta honako hau adierazi du, gainera: "*gure helburua da kirola eta gorputz ariketa sustatzea pertsona guztien artean, ez dadin egon inolako oztoporik edo bazterketarik horretarako*".

Ezagutza hori lortzeko, Bilboko Udalak, Bilbao Kirolak udal entitatearen bidez, hainbat hobekuntza egin ditu instalazio bietan.

- **Oinen bidez hautemateko bideak ezarrarazi ditu**, zoruan zerrendak eta puntuak jarriz, ikusmen arazoak dituzten pertsonak sartzeko eta ibiltzeko errazago izan dezaten.
- **Lehendik zegoen seinaletika hobetu du**: komunak eta aldagela egokituak non dauden errazago jakiteko seinaletika jarriz; braille bidezko seinaletika jarriz, ikusmen arazoak dituzten pertsonak errazago izan dezaten ibiltzea eta tornuak edo kutxatilategiak non dauden jakitea; zerrendak eta puntuak zoruan, ikusmen arazoak

dituzten pertsonak errazago izan dezaten sartzea eta ibiltzea. Halaber, SOS mezuaren igorle gehiago jarri dira, eta hobetu egin dira lehendik zeudenak.

- **Mugikortasunerako laguntzak hobetu ditu**, haien kokalekua edo egoera hobetuz, eta are laguntza berriak eskuratuz komunitarako eta aldageletarako; mugikortasunerako laguntzak direla entelegatzen da hagak eta oralekuak jartzea gune horien erabilera errazteko, edota elementuen kokalekua aldatzea gurgildun aulkietan dabilzan pertsonak errazago izan dezaten haietara iragatea. Halaber, pabiloiko harmailetara sartzeko ate automatikoa jarri da.
- **Ikus kontrastea errazteko hobekuntzak eginarazi ditu**, zoladurak eta zutiko estaldurak hobetuz, hartara errazago ezagut daitezkeen guneak eta oztopoak, diferentzia kromatikoen bidez.
- **Komunikazioa hobetu du**: indukzio magnetikozko begizta eramangarri bat jarriz atariko harreran, audifonoa edo kokleako inplantea duten pertsonentzat.

Lan horietarako, 76.048 euro baliatu dira.

Une honetan, Bilbao Kirolak udal entitateak ikuskatuak ditu beste hiru instalazio, San Mamesekoak, Miribillakoak eta Txurdinagakoak, behar diren obrak eginarazteko 2022an eta ziurtatze prozesuan aurrera egiteko. Asmoa da datozen urteetan irisgarritasun unibertsalaren ziurtagiria lortzea bi instalazio horietarako, eta ostean Bilbao Kirolak-en gainerako kiroldegietarako ziurtagiri hori berori erdiestea.

## **KIROL EGOKITUA BILBAO KIROLAK UDAL ENTITATEAN**

Bilbao Kirolak udal entitatearen kirol eskaintzan badira **234 plaza dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat gordeta, guztira eskaintzen dituen 29 ikastaroetan eta aretoko eta igerilekuko 6 modalitateetan**: psikomotritzitatea, kirol askotarikoen saioak, aerobica, igeriketa, fitnessa eta gorputz jarrerak zuzentzea.

Eskaintza horri gehitu behar zaio **makina berriazko** bat dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, **San Ignazioko kiroldegian** dagoena, eta baita ere pertsona horien beharretara **egokitutako makinak udal kiroldegietako** fitness-aretoetan.

Era berean, **Bilbao Kirolak udal entitateak** Gabonetarako, Aste Santurako eta udarako antolatzen dituen adingabeentzako **kirol aisialdi osasungarriko programetan** beti gordeko dira lekuak dibertsitate funtzionala duten ume eta gazteentzat.

Gainera, Bilboko Udalak badu dirulaguntza-programa bat **kirol egokitua sustatzeko eta kirola dibertsitate funtzionala duten pertsonak gizarteratzeko baliabide** moduan sustatzeko, eta 23.100 euro jartzen ditu horretarako, dibertsitate funtzionala duten pertsonak osatutako talde edo klubentzat edo dibertsitate funtzionala duten kirolari banakoentzat, dibertsitate funtzionala duten pertsonen gorputz jarduera areagotzeko

programak erabat horretarako garatzen dituzten pertsonentzat, edo gizartearen sektore horrentzako kirol-ekitaldiak garatzen dituzten pertsonentzat. Udalak, halaber, dirulaguntza izendun bat dauka **Bilboko Bidaideak BSR** gurpil aulkiekiko saskibaloi klubarentzat.

## **ARDATZ SOZIALA, BILBORAKO KIROL ESTRATEGIA**

**Bilborako Kirol Estrategian** bada estrategia-ardatz sozial bat. Hala, bada, agiriko ildo horretan, kirolaren izaera soziala nabarmentzen da, pertsonen eta taldeen ongizatea areagotzen lagun dezakeen politika gisa. Ardatz horren helburuak dira, besteak beste, **berdintasuna sustatzea kirol arloan, kirolean inklusio soziala sustatzea kiroleko ekitate-irizpideak ezarriz eta gorputz-ariketa guztientzako eskainiz eta, orobat, kirol egokituko programen eskaintza handitzea, dibertsitatea duten eta ez duten pertsonen kirola elkarrekin egin ahal izateko jarduerak eskainiz.**

## **PADEL PISTAK ESTALTZEA**

Aburtok San Ignazioko kiroldegira egindako ikustaldia baliatu du padel eta tenis guneak nola geratu diren ikusteko, Bilbao Kirolak udal entitatearen bitartez eginarazi dituen hobekuntzen ostean.

Alde batetik, **lau padel pista estalarazi ditu** Udalak, estali gabe baitzeuden, eta, hala, pista guztiak geratu dira estalita, guztira 8. Alde horretatik, Juan Mari Aburtok adierazi du helburua hau dela: *"kirola egin dadin erraztasunak ematea eta sustatzea, eguraldiaren axolarik gabe, eta kirol modalitate honen eskari geroz eta handiagoari erantzutea"*. Instalazioak estaltzeko obretako inbertsioa 183.554 euro izan da.

Beste alde batetik, Bilbao Kirolak udal-entitateak aldatu egin du lur zanpatu artifizialezko zoladura kiroldegi horretako 3 tenis pistetan, eta haren ordeztu erretxina sintetikoak ezarri, jokalekuen kalitatea hobetuz. Lan horietarako, 68.561 euro baliatu dira.

## **SARE SOZIALAK:**

- **Bilbao Udala:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)
- **Bilbao Kirolak:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)

#EmanKirolari #aktibazaitz

## LOS POLIDEPORTIVOS MUNICIPALES DE SAN INAZIO Y ATXURI RECIBEN LA CERTIFICACIÓN DE ACCESIBILIDAD UNIVERSAL DE AENOR

- El Alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto, ha visitado esta mañana las instalaciones de San Inazio, donde ha recibido la certificación de manos de la presidenta de AENOR en Euskadi, Luz Emparanza.
- Este reconocimiento ha sido posible gracias a las obras de mejora desarrolladas por el Consistorio en ambos Polideportivos. Los trabajos permiten que todas las personas, incluidas quienes tienen alguna discapacidad motora, sensorial o cognitiva, puedan acceder a ellos y disfrutar de sus servicios.
- El Ayuntamiento de Bilbao trabaja para que, a lo largo de los próximos años, todos sus Polideportivos cuenten con este mismo certificado.
- El Alcalde bilbaino ha aprovechado la visita al Polideportivo de San Inazio para comprobar el estado de las canchas de pádel, recientemente cubiertas, y también de las de tenis, en las que se cambió el pavimento.

(Bilbao, 20 de enero de 2022).- Los Polideportivos Municipales de San Inazio y Atxuri han recibido la certificación de accesibilidad universal de AENOR, que garantiza que ambas instalaciones cumplen con las condiciones de accesibilidad suficiente para que todas las personas, incluidas quienes tienen algún tipo de discapacidad motora, sensorial o cognitiva, puedan disfrutar de los servicios que se ofrecen en ellos.

El Alcalde **Juan Mari Aburto**, junto con la Concejala de Juventud y Deporte, **Itxaso Erroteta**, y representantes de la Corporación Municipal, ha visitado esta mañana las instalaciones del Polideportivo de San Inazio. En esta visita ha recibido, de manos de la Presidenta de AENOR en Euskadi, **Luz Emparanza**, ambos certificados. Aburto ha destacado que con las dos nuevas certificaciones recibidas hoy “*el Ayuntamiento de Bilbao avanza y refuerza su compromiso con la inclusión y la accesibilidad en sus instalaciones, en esta ocasión, deportivas*”. El Alcalde bilbaino ha asegurado que “*nuestro objetivo es fomentar el deporte y la actividad física entre todas las personas, sin barreras y sin ningún tipo de exclusión*”.

Para alcanzar este reconocimiento, el Ayuntamiento de Bilbao, a través de Bilbao Kirolak, ha desarrollado una serie de mejoras en ambas instalaciones:

- **Instalación de encaminamientos podotáctiles**, consistentes en la colocación de bandas y puntos en el pavimento para facilitar el acceso y la deambulación a personas con problemas de visión.

- **Mejora de la señalética existente**, con la colocación de señalética para facilitar la localización de aseos, vestuarios adaptados; señalética braille para facilitar la deambulación y localización de distintos elementos como tornos o taquillas a personas con problemas de visión; bandas y puntos en el pavimento para facilitar el acceso y el tránsito a personas con dificultad visual. También se incluye la ampliación de avisadores SOS y la mejora de la señalización en los existentes.
- **Mejora en las ayudas a la movilidad** para mejorar la ubicación, el estado o incluso colocación de nuevas ayudas a la movilidad en aseos y vestuarios, entendiéndose como ayudas a la movilidad, las barras y asas de apoyo para facilitar el uso de dichos espacios, así como la reubicación de elementos para facilitar la transferencia a personas usuarias en sillas de ruedas. También se ha automatizado la puerta de acceso al graderío del pabellón.
- **Mejoras en facilitar contraste visual** consistente en mejoras en pavimentos y revestimientos verticales para ayudar a identificar espacios u obstáculos mediante diferencias cromáticas.
- **Mejora en la comunicación** consistente en la colocación en recepción de bucle de inducción portátil para personas con audífono o implante coclear

La inversión en estos trabajos ha sido de 76.048 euros.

En estos momentos, Bilbao Kirolak ya ha auditado otras tres instalaciones; San Mamés, Miribilla y Txurdinaga con la intención de ejecutar las obras necesarias en 2022 y seguir con el proceso de certificación. El objetivo para los próximos años es obtener la misma certificación de accesibilidad universal en el resto de Polideportivos de Bilbao Kirolak.

## **DEPORTE ADAPTADO EN BILBAO KIROLAK**

La oferta deportiva de Bilbao Kirolak incluye **234 plazas para personas con diversidad funcional, en un total de 29 cursos de 6 modalidades de sala y piscina diferentes:** psicomotricidad, multideporte, aerobio, natación, fitness y corrección postural.

A esta oferta se suma la **máquina específica** para personas con diversidad funcional ubicada en el **Polideportivo de San Inazio** y la **maquinaria adaptada** a las necesidades de estas personas en las salas de fitness de los **diferentes Polideportivos municipales**.

Asimismo, en los **programas de ocio deportivo y saludable organizados por Bilbao Kirolak** y dirigidos a menores para las vacaciones escolares de Navidad, Semana Santa y verano, siempre se reservan plazas para niños, niñas y jóvenes con diversidad funcional.

Además, el Ayuntamiento de Bilbao tiene un programa de subvenciones para la promoción del **deporte adaptado y el fomento del deporte como una herramienta de integración social** de personas con diversidad funcional a la que destina 23.100 euros, para equipos

o clubes integrados por personas con diversidad funcional, deportistas individuales con diversidad funcional, personas que desarrollen programas deportivos dirigidos en su totalidad a potenciar la actividad física de personas con diversidad funcional o personas que desarrollen eventos deportivos dirigidos a este sector de la sociedad. El Consistorio tiene mantiene también una subvención nominativa con el **Bidaideak BSR** Bilbao, club de baloncesto en silla de ruedas.

## **EJE SOCIAL, ESTRATEGIA DEL DEPORTE PARA BILBAO**

La [Estrategia del Deporte para Bilbao](#) contempla un eje estratégico denominado, social. Así, en esta línea del documento se remarca el carácter social del deporte, como política que puede contribuir a aumentar el bienestar de las personas y grupos. Los objetivos de este eje son, entre otros, **la promoción de la igualdad en el ámbito deportivo, la inclusión social en la práctica del deporte con la incorporación de criterios de equidad en el deporte y universalidad de la actividad física, así como la ampliación de los programa de deporte adaptado para incorporar actividades que permitan la práctica conjunta de personas con o sin diversidad.**

## **CUBRICIÓN PISTAS DE PÁDEL**

El Alcalde Aburto ha aprovechado su visita a San Inazio para comprobar el estado de las zonas de pádel y de tenis en las que el Ayuntamiento, a través de Bilbao Kirolak, ha intervenido recientemente.

Por un lado, el Consistorio ha **cubierto las 4 pistas de pádel** que quedaban descubiertas, de esta manera todas las pistas, un total de 8, están cubiertas. En este sentido, Juan Mari Aburto ha señalado que el objetivo es *“facilitar y fomentar la práctica deportiva sin importar las condiciones climatológicas y satisfacer la creciente demanda en esta modalidad deportiva”*. La inversión en estas obras de cubrición ha sido de 183.554 €.

Por otro lado, Bilbao Kirolak ha sustituido el pavimento de tierra batida artificial de las 3 pistas de tenis ubicadas en este Polideportivo por un pavimento de resina sintética que mejora la calidad de las canchas. La inversión en este caso ha sido de 68.561 euros.

## **REDES SOCIALES**

- **Bilbao Udala:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)
- **Bilbao Kirolak:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)

#EmanKirolari #aktibazaitez